

Ariel Dorfman

Herioa eta dontzeila



JATORRIZKO IZENBURUA
La muerte y la doncella
Ediciones de la Flor,
Buenos Aires, 1992

ITZULPENA
Fito Rodriguez

LEHENENGO EDIZIOA
Tafalla, 2010eko apirila

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Ariel Dorfmanek OBRARENA
© Fito Rodriguezek ITZULPENARENA

Editorial Txalaparta e.m.l.
Navaz y Vides 1-2
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com



AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
RGM

Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN
978-84-8136-587-0
LEGE GORDAILUA
BI. 931-10



HITZAURREA

HISTORIA ISTORIOEK KONTATZEN DUTE

SCHUBERTEN *HERIOA ETA DONTZEILA* musika entzutean, Paulina gaixotu egin ohi da torturapean pasaturiko sufrikarioa gogora datorkiolako.

Behin, Gerardo, bere senarra, dakarren autotik aipatutako doinua entzutean, torturatzailetako bat izan omen zenari (Roberto Miranda medikua) antzeman dio eta, ustez, aspaldiko zorra kitatzeko garaia iritsi dela uste du...

Testu honetan oinarriturik, Roman Polanskik 1994an eginiko filmak (Sigourney Weaver; Ben Kingsley eta Stuart Wilson) *Death and the Maiden* izeneko antzezlanaren famatu zuen eta, orduetik hona, mundu osoko antzeztokietan ibili da 48 hizkuntzatarara itzulita.

Oraingo honetan, berriz, euskaraz ere gozatzeko aukera izango dugu.

Literaturak, Historiak helarazi ezin duena adierazten badu, balio digu.

Bizipen adiezinak ulergarri bihurtzea litzateke gertuko istorioen funtsa. Literaturako Nobel saridun izan zen Boris Pasternakek «landareak hazten badira ere, inork ezin du belarra hazten ikusi» esaten zuenean, deskripzio zehatzen aldeko hautua ari zen defendatzen literaturan eta, bere *Zhivago Doktorea* idatzi zuelarik, gertaera xumeen bidez So vieten Iraultza gertakizunaren berri dotore eman zigun, nahiz eta orduko estalinismoak ez zuen horrela ulertu nahi izan eta eleberriaren zabalkundea debekatu zuen.

Eskerrak argitaratzailea zen beste komunista batek (Feltrinelli) zentsura horri muzin egin zio-la eta testua kaleratzea erdietsi zuela. Horri zor diogu, besteak beste, egoera iraultzaile batek dakarrenaz behar bezala ohartzek o istorio haien ezaguera.

Horren gainean egin zen Hollywooden moduko filma, aldiz, zeharo desberdina da; beste gauza bat da.

Izan ere, adibideek hurbildu egiten dizkigute besteen bizierak iragana orainera ekartzeko gai diren heinean. Eta horretan, Historian zehar, antzerkia biziro egokia izan da. Hura dela bide, antzeztua irudikatzea eta, azk enik, ulertzea ere ahalbidetu ahal izan da mendeetan zehar.

Mendekuaz eta amodioaz, gorrotoaz edo liluraz jabetu gara antzeztokian aurkezturik ikusi dugunari esker. *Herioa eta dontzeila* da horren guztiaren adibide.

Muga-mugan sentitutako beste bizipen batzuk bezala, torturatuaren bizilegea helezina izaten da, gehienetan. Istorio xume batek, ordea, erakuts dezake hamaika datuk azaltzerik izan ez duena... Ariel Dorfmanek idatzitako honek egin duen moduan.

Buenos Airesen jaio baina txiletar herritartasuna duen idazle honek mota guztietako testuak eskaini dizkigu. Berdin poesian, antzerkigintzan, eleberriak sortuz edota saiakerak idatziz herri-kulturaren ikerlari joria dela erakutsi du. Allenderen gobernuarekin bat egin zuen eta Estatu kolpearen ondorioz Frantziara hasieran eta AEBetara gero, erbesteratu zen. Egun Duke unibertsitatean irakasle dena Sorbonan (Paris IV), Amsterdamen, Kaliforniako Berkeleyn edo Marylandeko unibertsitateetan ere irakasle ibilia da.

Giza eskubideen aldeko eragile nekaezinak ez du inoiz errazkeriara jo nahi izan.

Baina ia berrogeita hamar hizkuntzatan antzezturiko maisu-idazlan hau euskaraz argitaratua izatera iristeko moduak ere, badu bere istorioa...

Dorfmanek kontatu duena Txilen gertatu zen eta, gure semea hantxe ikasten ari zela, testua be-

re lagun alemaniar baten bidez (Nina Bust-Bartels) ezagutu ahal izan nuen.

Aspaldi ikusia nuen arren Roman Polanskik zuzendutako filma, idazkiak zuen berezko indarrak harrapatu ninduen eta euskarara ekartzea erabaki nuen.

Ariel Dorfmanekin jarri nintzen harremanetan eta hark, honela erantzun zidan: «Torturaren aurkako edozein ekimenen alde nago, beraz, antzezlanak zuen hizkuntza ederrera eramatearekin bat natorkizu».

Ardura handiz segitzen ditu Dorfmanek bere literatura-lanen itzulpenak zeren berak elebitan argitaratzen ohi ditu idazlanak (ingelesez eta espainieraz) nahiz eta, hitz egiteko behinik behin, beste hizkuntza askotan ere gai izan.

Beraz, lan horri ekiteko o Martin Anso nahiz Jon Urruxulegiren laguntza paregabea izan nuen, baina, jakina denez, literatura dramatikoak antzez-arte arte inoiz buruturik ez dagoenez, aktore batzuekin jarri nintzen harremanetan. Horrela, Ramon Agirre, Itziar Ituño eta Asier Sotarekin batera, itzultako testua onduz joan ginen aurkezteko modura eramateraino.

Torturaren Aurkako Taldeak bideratu zuen lehen emanaldia Azpeitian. Gero Donostia, Sara, Berriozar edota Hernani etorri ziren... eta, orain, Txalpartak testua kaleratzeko deliberoa hartu du.

Euskal Herrian, zoritxarrez, horren ohikoa izaten den torturaren esperientziaz aritu ahal izateko bada, idazki honek munduari itzulia eman behar izan dio euskarara itzulia izateko.

Gertukoei, gure seme-alabei kasu, torturatu izatearen eskarmentua behar bezala inoiz azaldu ezin izan diedana, *Herioa eta dontzeila* antzezlanak ikusita edo irakurrita gerturatuko diedalakoan nago.

Horrela, beren antzera, beste euskaldun askok, urrunekoak iruditu arren hain hurbil dauden mota honetako istorioetara heltzerik izango dutela uste dut...

...hau ere Euskal Herriko Historiaren zati baita.

FITO RODRIGUEZ

PERTSONAIAK

PAULINA SALAS, 40 urte inguruko emakumea.
GERARDO ESCOBAR, adin bertsuko gizona, abokatua.
ROBERTO MIRANDA, 50 urte inguruko medikua.

Gure garaian gertatzen da; eta tokia, diktadura-
tik atera berri den edozein herrialdetan koka ba-
daiteke ere, Txile izango da ziur asko.

Lehenengo
ekitaldia

ITSAS MARRUMA. GAUA DA. Hondartza ondoko etxe bateko jangelan, Escobar senar-emazteentzako afaria jarrita dago. Hiru aulki daude, grabagailu bat eta argi bat. Kanpoan, berriz, balkoi handi bat itsasoari begira, jangelarekin leiho baten bitartez bat egiten duena. Baita balkoitik logelara daraman ate bat ere. Kanpoan, Paulina Salas eserita dago, ilargiari begira. Urrutian auto baten burruna entzuten da. Etxekoandrea jaiki, jangelara joan eta leihora hurbildu da. Atzera jo du, zerbaiten bila, eta hurbiltzen ari den autoak gela argitu duenean, eskuan pistola bat daramala ikusten da. Autoak balaztatu egin du, motorra eta argiak pizturik. Autoaren atea ireki eta itxi egin dela entzungo da.

GERARDOREN AHOTSA (Off-ean)

Seguru ez duzula sartu nahi? Trago bat, besterik ez bada. Orduan, ni joan aurretik elkar-

tuko gara. Astelehenerako itzuli behar dut. Igandea ondo iruditzen zaizu? Nire emazteak sekulako piscosourra egiten du. Aizu, ez dakizu nola esk ertzen dizudan... Ig andera arte. (Barre egin du).

(Paulinak pistola gorde du. Gortinen atzean ezkutatu da. Autoa badoa eta ilargiak besterik ez du argitzen agertokia. Gerardo sartu da)

GERARDO

Paulina? Laztana? Ze ilun dagoen hau (Paulina ezkutatuta dagoela ikusi du. Argia piztu du). Baina zer egiten duzu hor, Paulina maitea, nire bihotzeko azukre koxkorra? Barkatu horren berandu etorri izana...

PAULINA (Asaldatuta dagoela ezkutatu nahian)

Nor zen?

GERARDO

Gertatzen dena da...

PAULINA

Baina nork ekarri zaitu?

GERARDO

Ba... matxura bat izan dut, ez... ez arduratu, ez da istripua izan, baina autoak huts egin du... Zorionez, gizon batek hartu nau, gurpil bat zulatu zait... Aizu, oso goibel daukazu etxea, ezta? (Beste argi bat piztu du. Mahaia

atonduta dagoela ikusi du). Gaixoa. Afaria hoztu egin da, ezta?

PAULINA (Oso lasai agerraldi hau bukatu arte)

Berotu egingo dugu. baldin eta ezer ospaturik badugu, ezta? Ba al duzu ospatzeko zerbait, Gerardo?

GERARDO

Zeuk jakingo duzu. (Isilune luzea. Poltsikotik iltze handi bat atera du). Ba al dakizu hau zer den? Nire gurpila zulatu duen iltze madarikatua. Eta ba al dakizu zer gertatzen den gurpila zulatzen denean? Gurpila aldatu beharra dagoela. Aldatu, jakina, baldin eta aldatzeko besteren bat baduzu, ezta? Baldin eta zure emazteak aurretik zulatutakoa konpondu eta bere tokian utzi izan balu, ezta?

PAULINA

Emaztea. Beti emakumea. Mota horietak o konponketak zuk egin behar dituzu.

GERARDO

Barkatu, maitea, baina geratuta geunden...

PAULINA

Zuri dagokizu. Nik etxearen ardura daukat, etxeakoandrea naiz, baina gauza horiek zuk egin behar dituzu.

GERARDO

Ongi, ez duzu laguntzaile bat etxerako nahi, baina gero...

PAULINA

Autoa gutxienez...

GERARDO

Gero kexatu egiten zara...

PAULINA

Ni ez naiz sekula kexatu.

GERARDO

Hau eztabaida antzua! Zergatik ari gara sesioan? Gauza bat ahaztu zait.

PAULINA

Ez gara sesioan ari, maitea. Zuk zure gurpila ez konpontzeagatik kargu hartu didazu.

GERARDO

Nire gurpila?

PAULINA

Eta nik, berriz, oso gozoki honakoa esan dizut...

GERARDO

Zaude, arren. Argi dezagun kontu hau behin-goiz. Gurpila ez zenuela konpondu, gure gurpila, bego; baina badago beste gauza bat argitu beharrekoa: katua!

PAULINA

Ze katu eta ze katuondo!

GERARDO

Horixe bera. Ze katu! Zer egin zenuen katua-
rekin?

PAULINA

Zure katua? Hemen naukazu ni, zure katua, maitea.

GERARDO

Nire katua?

PAULINA

Zure katutxoa, bai.

GERARDO (Barre egin du, besarkatu eta musukatu egin du)

Orain, esadazu: autoko katuaz ari naiz; zer egin zenuen horrekin?

PAULINA

Amari utzi nion.

GERARDO (Emaztea askatuz)

Zure amari? Zure amari utzi al zenion?

PAULINA

Bai, nire amatxori, hain zuzen.

GERARDO

Eta jakin al daiteke zergatik?

PAULINA

Jakina, behar zuelako.

GERARDO

Baina nik, aldiz, guk, suposatzen da... ezin da... maitea... hori ez da inoiz egin behar.

PAULINA

Ama hegoaldera zihoan, bidaian, eta benetan behar zuen. Baina zuk hemen inguruan ibiltzeko...

GERARDO

Ni izorratuko naiz, jakina.

PAULINA

Ez.

GERARDO

Bai. Telegrama jaso eta larrialdia delakoan hiburura joan behar izan dut lehendakariarekin nire bizitzako bilera garrantzitsuena egiteko eta...

PAULINA

Eta...

GERARDO

Iltze madarikatu bat sartu zait eta, zorionez ez zen joaterakoan gertatu, itzultzean baizik, eta hantxe bertan geratu naiz aldatzeko gurrilik gabe, katurik gabe... Paulina, ez dakit zure burutxo eder horretan gauza honetaz guztiaz behar adinako tokirik ote dagoen konturatzeko...

PAULINA

Nire buru ederrak bazekien, jakin ere, baten bat aurkituko zenuela bidean zuri laguntzeko. Neska polita izango al zen, behintzat? Sexia?

GERARDO

Gizonezkoa zela esan dizut.

PAULINA

Orain arte ez didazu halakorik esan.

GERARDO

Zergatik pentsatu behar duzu beti atzean emakumezko bat badagoela?

PAULINA

Zergatik izango ote da? (Isilaldia). Jatorra al zen gizona?

GERARDO

Jatorra oso. Horri esker...

PAULINA

Ikusten? Ez dakit nola egiten duzun, baina beti dena ondo ateratzea lortzen duzu... Nire amak, aldiz, matxura edukiz gero...

GERARDO

Ez dakizu zer-nolako poza ematen didan zure ama hegoaldea esploratzen ari dela jakiteak, nik lana besterik egiten ez dudan bitartean, batik bat.

PAULINA

Ez harrotu.

GERARDO

45 minutu, benetan, erlojuaren arabera. Autoak nire aurretik pasa eta pasa ari ziren eta ez ninduen inork ikusten. Edo hala ematen zuen, behintzat. Jendeak, asteburuan hondartzara doanean, ez omen du ezer ikusten... Ez dago inor lagundu beharrik. Besoak mugitzen hasi naiz, baina alferrik. Ez da inor geratu. Herri santu honetan elkartasuna zer den ahaztu egin dela garbi dago. Zorionez, gizon hori agertu da; Roberto Miranda du izena. Zerbait hartzera gonbidatu dut.

PAULINA

Hori badakit.

GERARDO

Datorren igandean ondo iruditzen al zaizu?

PAULINA

Ados.

GERARDO

Astelehenean itzuli behar dugunez. Ni itzuli.
Eta zuk, niri lagundu nahi baldin badidazu...

PAULINA

Orduan, izendatu zaituzte, ezta?

(Isilaldia)

GERARDO

Bai.

PAULINA

Zure lanbidearen gailurrera iritsi zara, beraz.

GERARDO

Oraingoz ez nuke iritsi naizenik esango. Izan ere, izendatutako guztien artean ni naiz gazteena, ezta?

PAULINA

Justizia ministroa izatea gailurra litzateke, ezta?

GERARDO

Hori ez dagokit niri.

PAULINA

Berari esan al diozu?

GERARDO

Nori?

PAULINA

Zure «aitapontekoari»...

GERARDO

Baina nik ez dut ezagutzen. Niretzat lehen aldia da. Gainera, oraindik ez dut erabaki egingo ote dudan...

PAULINA

Erabakita daukazu.

GERARDO

Bihar erantzungo dudala agindu nuen eta, era berean, oso pozik nengoela baina denbora behar nuela...

PAULINA

Lehendakariari?

GERARDO

Bai, lehendakariari. Hausnartu behar nuela.

PAULINA

Ez dakit zer hausnartu behar duzun. Erabakita daukazu. Gerardo, badakizu dagoeneko deliberatu duzula eta, are gehiago, urteak daramatzazula lanean hori lortzek o. Beraz, ez dakit orain itxura zergatik egiten duzun.

GERARDO

Lehenengo eta behin... zuk baietz esan behar dudala esan behar didazu.

PAULINA

Orduan, bai.

GERARDO

Ez dut horrela nahi.

PAULINA

Ez dakit beste modu batez esaten.

GERARDO

Nik gauzak beste modu batez adierazten aditu zaitut. (Isilaldia). Onartuz gero, nirekin bat zaudela jakin behar dut. Ez duzula uste honenek inolako kalterik berpiztuko dizunik... Ez dakit... zuretzat latza izan daiteke... eta niretzat ere zu berriz gaixotuko bazina, oso txarra litzateke.

PAULINA

Minduta al zaude? Edo beldurtuta? Berriz zaindu beharko ote nauzun beldur?

(Isilaldia)

GERARDO

Ez da bidezkoa. (Isilaldi laburra). Zu zaintzea leporatzen didazu? Zu zaintzen jarraitzea...?

PAULINA

Eta lehendakariari esan diozu zure emazteak arazoak izan ditzakeela...

(Isilaldia)

GERARDO

Berak ez daki. Inork ez daki, ezta zure amak ere.

PAULINA

Baten batek jakingo du.

GERARDO

Ez naiz jende horretaz ari. Gobernu berrian inork ez dakiela diot. Hau da, ez dela gauza publikoa. Ez duzula inoiz horren berririk eman. Izan ere, salaketarik ez genuen egin.

PAULINA

Heriotzak bakarrik, ezta?

GERARDO

Ez dut ulertzen, Paulina.

PAULINA

Batzordeak. Hark heriotzak bakarrik ikertuko ditu, ezta?

GERARDO

Batzordeak heriotzak eta desagerpenak edo balizko heriotzak ikertuko ditu.

PAULINA

Kasu larriak soilik, ezta?

GERARDO

Larrienak argituz gero, gainerakoak ere argiturik geratuko direlakoan gaude.

PAULINA

Kasu larriak soilik, ezta?

GERARDO

Konponezinak diren kasuak bakarrik, esan dezagun.

PAULINA (Silabak banaka-banaka ahoskatuz)

Kon-pon-e-zi-nak.

GERARDO

Niri ez zait gustatzen horretaz hitz egitea,
Paulina.

PAULINA

Ezta niri ere.

GERARDO

Baina hitz egin behark o dugu, ezta? Hilabe-
teak pasatu beharko ditut lekukotasunak bil-
tzen. Eta etxeratzen naizen bak oitzean, nik
zerbait kontatzea nahiko duzu. Eta ez baldin
bazara gauza egoera horri eustek o... zuk (be-
sarkatu du) jakingo bazenu nola maite zaitu-
dan... jakingo bazenu nolak o mina dudan
oraindik.

(Isilaldia)

PAULINA (Askatu gabe, baina era bortitzean)

Bai, bai, bai... Hau al da nahi duzun onarpe-
na?

GERARDO

Bai, hori da nik nahi dudana.

PAULINA

Egia osoa azalaraztea behar dugu. Zin egida-
zu.

GERARDO

Oso-osorik, edo frog atzerik dagoen guztia,
behintzat. Izan ere, nahiko...

PAULINA

Lotuta zaudete, ezta?

GERARDO

Lotuta baino gehiago mugatuta. Baina, hala ere, muga horien barruan asko da aurreratu daitekeena... Eta emaitzak argitaratuko ditugu. Liburu ofizial batek gertatu zen guztiaren berri emango du. Inork ezin izango du ukatu. Eta gure herriak gertakari latz haiek ezagutuko ditu.

PAULINA

Eta gero? (Gerardok ez dio erantzun). Biktimen senideei kasu egingo zaie, krimenen salaketak jasoko dira, baina zer gertatuko o da errudunekin?

GERARDO

Ikertutakoa epaileen esku utzik o dugu eta haiek erabakiko dute zer egin.

PAULINA

Epaileek? Diktaduran bizitza bakar bat salbatzeko g auza izan ez ziren horiek? P eralta epaileari emango al diozu txostena? Senarra desagertu zitzaion emakume hari seguruena beste emakume gazteago batekin joana zela esan zion epaile berberari? Epaileak, bai, baina Justizia-epaileak? (Paulina barrez hasi da, pitinka, baina ia modu histerikoan).

GERARDO

Paulina, P aulina... nahik oa da! (Besarkatu egin du; emakumea lasaitzen joan da pixka-

naka-pixkanaka). Tuntuna. Tuntuntxoa, ene katutxoa. Eta zer gertatuko zatekeen matxura zuk eduki izan bazenu? Zu bide ertzean, autoak pasatu eta pasatu, haien argiak zure begietan, zu bakarrik... Pentsatu al duzu zer gerta ziezazukeen?

PAULINA

Norbait geratuko zen. Gizon bera, seguru asko. Miranda, ezta?

GERARDO

Bai, arrazoi duzu. Nonbait, umezurtz eta neskatxak salbatzen ibiliko da.

PAULINA

Zu bezala?

GERARDO

Arima bikiak gara.

PAULINA

Beraz, jatorra izango da...

GERARDO

Bai, horixe. Beragatik izan ez balitz... Iganderrako gonbidatu dut. Ados?

PAULINA

Ados. Beldur nintzen. Autoa entzun eta ez zen zurea.

GERARDO

Ez zegoen arriskurik, ordea.

PAULINA

Ez. (Isilaldia). Gerardo, lehendakariari baietza eman diozu, ezta? Esan egia. Edo zure batzordeko lana gezur batekin hasiko al duzu?

GERARDO

Ez nizun minik eman nahi.

PAULINA

Lehendakariari baietza eman diozu, ezta? Niri ezer esan aurretik, ezta?

(Isilaldia)

GERARDO

Bai. Baietza eman diot. Zuri ezer esan aurretik.

(Ilundu egin du)